



Ebazpena, 2024ko urtarrilaren 25ekoa, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren zuzendariarena, 2024ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XLI edizioko lehiaketako epaile bakarra izendatzen duena.

Euskadiko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren martxoaren 30eko 2/2023 Legeak zehazten duenez, Autonomia Erkidegoko erakunde erkideen eskumena da eskola-kirolaren oinarriak eta printzipio orokorrak, kirol-arloko diziplina-araubidea eta lehiaketak arautzea. 62.3 artikulua arabera, Autonomia Erkidegoko eskola-lehiaketak antolatu, kalifikatu eta baimentzeko eginkizunak Eusko Jaurlaritzari dagozkie.

Testuinguru horretan, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2024ko urtarrilaren 16ko Aginduaren bidez, 2024ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XLI ediziorako deialdia egin zen. Agindu horren 10. artikuluan ezartzen denez, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzaren ebazpenaren bidez, lehiaketako epaile bakar bat izendatuko da kirol-modalitate bakoitzerako.

Hala ere, lehiaketako epaile bakarraren parte-hartzea beharrezkoa izango den balizko gorabeherak ikusita, ez da beharrezkotzat jotzen kirol-modalitate bakoitzerako beste izendapen bat egitea, eta nahikoa izango da modalitate guztietarako izendapen bakarra egitea.

Horrenbestez, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.- Elisabeth Altube Bengoa andrea Euskadiko 2024ko Eskolarteko Kirol Jokoen XLI edizioko lehiaketako epaile bakar izendatzea.

Bigarrena.- Honako pertsona hau lehiaketako ordezkoko epaile izendatzea, ez badago, gaixorik badago edo legezko kausaren bat badago:

- Jorge Tapia Santamaria

Vitoria-Gasteiz, sinadura elektronikoaren data

Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren zuzendaria,
GORKA ITURRIAGA MADARIAGA